

**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

**2011ko AZAROAREN 10ean, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN  
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2011ko azaroaren 10ean, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 19.30 orduetan, Xabier Mujika Pagola alkatearen lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

**ALKATEA:** Xabier Mujika Pagola

**ZINEGOTZIAK:** *Gotzon Jauregi Sarasola zinegotzia 19.50 orduetan bertaratzen da.*

*Karlos Irazu Muñoa zinegotzia 20.00 orduetan bertaratzen da.*

Imanol Aranzabal Lasa  
Aritz Usandizaga Larrañaga


Bere ezin etorria azaltzen dute: Igor Barandiaran Perez de Arriluzea, eta Jon Tejeria Otermin.

**IDAZKARIA:** Ane Gomez Urteaga

...//...

Alkate-lehendakari jaunak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten diren Udalbatzarretako akta onestu, hala badagokio:**
  - 2011ko urriaren 6an egindako ohiko bilkura
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
- 3. Larraulgo Sorozelai 41 eskubian egindako ezkutuko obren azterketa, hala bada.**
- 4. Larraulgo Beobide Erdikoa baserriaren teilatuan telefonia mugikorreko antena bat jartzeko baimena dela eta Gipuzkoako Foru Aldundiak igorritako txostenaren azterketa, hala bada.**
- 5. Agiñazabal txiki baserri ondoan pabiloi bat egiteko baimena eskaera, Gipuzkoako Foru Aldundira igortzeko onespena, hala bada.**
- 6. Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzak eginiko diru-laguntza eskaeraren azterketa, hala bada.**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

7. 2011 urteko ur eta zabor hobarien eskaeraren esleipena, hala bada.
8. Udal zinegotzien bizitza aseguroen esleipena, hala bada.
9. 2012 ekitaldirako Udal Ordenantza Fiskalak eta Udal zerbitzuak eskeintzeagatik Tasa eta Prezio Publikoen Ordenantzak onartzea, hala bada.
10. 2011 urteko jaietako gastuen kitapenaren berri ematea, hala bada.
11. Fakturak eta ordainketak.
12. Beste batzuk.
13. Erregu, galderak eta mozioak.

.../...

### LEHENENGO PUNTUA

**ONDOREN AIPATZEN DIREN UDALBATZAREN AKTAK ONESTU, HALA BADA.**

- ▣ 2011 urteko urriaren 6ko Udalbatzaren ohiko akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

### BIGARREN PUNTUA

**ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Alkate jaunak azkeneko Udalbatzarretik emandako ebazpenen berri ematen du:

18/2011 Alkatetza Ebazpena, urriaren 18koa, 2011ko 3.hiruhilabeteari dagokion ura eta zabor tasen erroldak onestea, ebazten duena.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditzen dira


### HIRUGARREN PUNTUA

**LARRAULGO SOROZELAI 41 ESKUBIAN EGINDAKO EZKUTUKO OBREN AZTERKETA, HALA BADA**

Batzarkideak aho batez, gaia mahai gainean uztea erabakitzen dute hurrengo Udalbatzararte.

### LAUGARREN PUNTUA

**LARRAULGO BEOBIDE ERDIKOA BASERRIAREN TEILATUAN TELEFONIA MUGIKORREKO ANTENA BAT JARTZEKO BAIMENA DELA ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAK IGORRITAKO TXOSTENAREN AZTERKETA, HALA BADA**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

*Gotzon Jauregi zinegotzia une honetan bertaratzen da.*

Batzarkideak aho batez, gaia mahai gainean uztea erabakitzen dute hurrengo Udalbatzararte.

### **BOSTGARREN PUNTUA**

**AGIÑAZABAL TXIKI BASERRI ONDOAN PABILOI BAT EGITEKO BAIMENA ESKAERA, GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIRA IGORTZEKO ONESPENA, HALA BADA.**

Ikusirik K.I. jaunak eginiko eskaera, non Agiñazabal Txiki baserri ondoan pabiloi bat egiteko obra baimena eskaera egiten duen.

Ikusirik Larraulgo Udalak Agiñazabal txiki baserri ondoan pabiloi bat egiteko obra baimena eman aurretik, Larraulgo Arau Subsidiarioetan agertzen den modura Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza departamentuko on eritzia izan behar duela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Agiñazabal txiki baserri ondoan pabiloi bat egiteko K.I. jaunak Udaletxe honetan aurkeztutako dokumentazioa Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza departamentura igorri, azken honek dagokion txostena egin dezan.

### **SEIGARREN PUNTUA**

**TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA.**

Ikusirik Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzak egitasmo berri bat duela, hau da, Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean liburu egitasmoa, horretarako diru-laguntza eskaera egiten duelarik.


Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitzari 100,00.-eurotako diru-laguntza ematea, Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean liburu egitasmorako.

BIGARRENA: 100,00.-eurotako gastua onestea.

### **ZAZPIGARREN PUNTUA**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### **2011 URTEKO UR ETA ZABOR HOBARIEN ESKAERAREN ESLEIPENA, HALA BADA.**

Ikusirik 2011 urterako ura eta zaborren tasetan hobariak eskatzeko epea ireki zela irailaren 1etik irailaren 30arte, epe horretan, interesdunek hobari eskaerak egin zitzaizketen.

Ikusirik aipaturiko epean eskaera bat egon dela M.C. G. andrearena.

Ikusirik M.C.G. andreak ekarritako dokumentazio, betetzen dituela oinarrietan eskatutakoa.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

#### ERABAKITZEN DU :

LEHENA.- M.C.G. andreari 2011urteari dagokion ura eta zaborren tasetan %100 hobaria aplikatzea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri M.C.G. andreari ematea

#### **ZORTZIGARREN PUNTUA**

#### **UDAL ZINEGOTZIEN BIZITZA ASEGURUEN ESLEIPENA, HALA BADA**

*Karlos Irazu zinegotzia une honetan bertaratzen da.*

Ikusirik Zinegotzien bizi aseguru berritzeko garaia iritsi dela.


Ikusirik hiru aseguru korreduriei eskatu zaiela Larraulgo zinegotzien bizi aseguru egiteko aurrekontuak, ondorengoak izanik:

- AXA SEGUROS
- YOKO GARBI Correduria de Seguros
- MAPFRE EMPRESAS

Aipaturiko hiru aurrekontuak azterturik, ikusten da AXA Seguros Etxeak aurkezturikoa egokiena dela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

#### ERABAKITZEN DU:



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

LEHENA: Larraulgo zinegotzi eta Alkatearen bizi aseguroa AXA SEGUROS Aseguru etxeari esleitzea, bere zenbatekoa 1.904,62 euro direlarik, eta ondoren zehazten diren arrisku-estaldurak dituelarik:

-Heriotza: 100.000,00.-euro

-Ezintasuna: 100.000.-euro

BIGARRENA: Erabaki honen berri, AXA SEGUROS, YOKO GARBI Correduria de Seguros eta MAPFRE Empresas Aseguru etxeari ematea.

### **BEDERATZIGARREN PUNTUA**

### **2012 EKITALDIRAKO UDAL ORDENANTZA FISKALAK ETA UDAL ZERBITZUAK ESKEINTZEAGATIK TASA ETA PREZIO PUBLIKOEN ORDENANTZAK ONARTZEA, HALA BADA**

Ikusirik 2012. urterako udal ordenantza fiskalak aztertzeke unea dela.

Ikusirik 2011 urteko irailaren 20ean Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak igorritako txostena, non jasotzen den ordenantza fiskalak sortu, aldatu eta ezabatzeko jarraitu beharreko prozedimendua, batetik, eta bestetik, 2011ko ekitaldian Udala aplikatzen datorren zerga eta tasak.

Gaia eztabaidatu ondoren, Udalbatzak, ahobatez,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- 2012 urterako zergak arautzen dituzten ordenantza fiskalari dagokionez, ondorengo aldaketak onestea:

#### **1.1.Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren kuotak zehazteko funtsezko elementuak arautzen dituen ordenantza fiskala.**


Ordenantzaren eranskina mantentzea erabaki da.

Hiri Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa zoru industrial edo tertziarioan: %0,30.

Gainerako hiri ondasun higiezinari aplikagarri zaion karga tasa: %0,25.

Landalur Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari aplikagarri zaion karga tasa: %0,60.

Dauden hobarien artean “Eguzki aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak” hobaria, % 50etik % 25era jaistea proposatzen da.



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### 1.2. Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren ordainarazpenerako zenbait ahalmen arautzen dituen ordenantza fiskala.

Zerga honen kuotak zehazteko finkatutako gutxienezko kuoten gehikuntza-koefizientea % 2,2 finkatzen da. Mantentzea proposatzen da.

### 1.3. Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren kuota zehazteko funtsezko elementuak arautzen dituen Ordenantza Fiskala.

Zerga honen koefizientea % 1,65 igotzea proposatzen da.

Ibilgailu mota eta potentzia Koefizient. Euroak

#### A) Turismoak:

9 zaldi fiskal bitartekoak % 1,65.....	30,34
9 - 11,99 zaldi f. bitartekoak % 1,65.....	60,69
12 - 13,99 zaldi f. bitartekoak % 1,65.....	101,14
14 - 15,99 zaldi f. bitartekoak % 1,65.....	141,60
16 - 19,99 zaldi f. bitartekoak % 1,65.....	182,06
20 zaldi fiskaletik gorakoak % 1,65.....	222,52

#### B) Autobusak:

21 plaza bitartekoak % 1,65.....	137,45
21 - 50 plaza bitartekoak % 1,65.....	195,76
50 plazatik gorakoak % 1,65.....	244,70

#### C) Kamioiak:

1.000 kg. Bitarteko karga erabilgarria % 1,65.....	69,76
1.000 - 2.999 kg. bitarteko k.e. % 1,65.....	137,45
2.999 - 9.999 kg. bitarteko k.e. % 1,65.....	195,76
9.999 kg-tik gorako k.e. % 1,65.....	244,70


#### D) Traktoreak:

16 zaldi fiskal bitartekoak % 1,65.....	29,16
16 - 25 zaldi f. bitartekoak % 1,65.....	45,82
25 zaldi fiskaletik gorakoak % 1,65.....	137,45

#### E) Trakzio mekanikoko ibilgai-luen atoi eta erdi-atoiak:

750-1000 kg. bitarteko karga erabil-garria % 1,65.....	29,16
1.000 - 2.999 kg. bitarteko k.e. % 1,65.....	45,82
2.999 kg.tik gorako karga e. % 1,65.....	137,45

#### F) Gainerako ibilgailuak:



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Ziklomotoreak % 1,65.....	7,44
Motozikletak: 125 z.k. bitartekoak % 1,65.....	7,44
Motozikletak 125 - 250 z.k. bitartek. % 1,65.....	12,74
Motozikletak 250 - 500 z.k. bitartek% 1,65.....	25,49
Motozikletak 500 - 1.000 z.k. bitartek. % 1,65.....	50,99
Motozikletak 1.000 cctik gora % 1,65.....	101,95

### ***1.4. Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga arautzen duen ordenantza fiskala.***

Mantendu egiten dira kuotak.

Baserrien berrikuntza	% 2,5
Besteak:	
a) 60.000,00 euro arteko aurrekontua dutenak:	% 4,50
b) 60.000,01 euro baino gehiagoko aurrekontua:	% 5,00

#### **HOBARIAK:**

- % 50 eko hobaria, eraikuntza, instalazio eta obrek ezgaitasun bat duten pertsonen irisgarritasun eta bizigarritasun baldintzak errazten dituztenean.

Hobari hau aplikatzeko, baldintza hauek beteko dira:

-Ezgaitasun kalifikazioa edukitzea.

-Mugikortasun baremoan, gutxienez, 7 puntu izatea.

-Kuota zehazteko, obraren aurrekontu osoa hartuko da kontuan, baldin eta obraren helburu bakarra eraikina ezgaitasunen bat duten pertsonen sarbide eta bizi baldintzak hobetzea bada.


-Obrek eraikina berritzeko helburua badute, baina aurrekontuan beste partida batzuk ere jasotzen badira ezgaitasunen bat duten pertsonen sarbide eta bizi baldintzak hobetzeko egokitzapenez gain, dagokion partidak bakarrik hartuko dira kontuan hobari eskubidea duen kuota zehazteko. Horretarako, nahitaezkoa izango da aurrekontua ondo bereizita aurkeztea helburu hori duten obren zatian.

### ***1.5. Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskala.***

Karga tasa: % 6.29 an mantentzea proposatzen da.

**BIGARRENA.**- Tasak arautzen dituzten ordenantzei dagokionez, ondorengo aldaketak onestea:

#### ***2.1. Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatiko tasak arautzen dituen Ordenantza Fiskala.***



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### 2.1.1. Ur horniketa.

Tasa honetan ondorengo proposamenak egiten dira.

#### 1. Ur horniketa

*Euroak*

##### 1.1. Ur Kontsumoa

##### 1.1.1. Etxez-etxeko ur hornidura

30m<sup>3</sup>. bitartekoa, hiru hilabetean ..... 15,00 € Mantendu

31m<sup>3</sup>tik goragokoa, hiru hilabetean ..... 0,60 €/m<sup>3</sup> bakoitza tik  
0,63€/m<sup>3</sup> bakoitza igotzea proposatzen da.

##### 1.2. Azpiegitura kanona

Guztientzat, hiruhilabeteko ..... 9,00€-tik 10€ tara  
igotzea proposatzen da.

##### 1.3. Kontadoreen alokairuen kanona

Guztientzat, hiruhilabeteko ..... 8,00 € Mantendu

1.4.- Hasierako engantxea etxe berrietan, etxeko ..... 120,00 € Mantendu

1.5.- Hobariak: Gizarte-ongizate batzordeak proposatutakoak: Ikus I. eranskina.

#### 2.1.2.- Zabor bilketa zerbitzua

*Euroak*

Etxez-etxeko bilketa, hiruhileko ..... 45,00 eurotik 46 eurora  
igotzea proposatzen da.

Industria, komertzio eta taberna bilketa, hiruhileko ..... 60,00 eurotik 62 eurora  
igotzea proposatzen da.

Hobariak: Gizarte-ongizate batzordeak proposatutakoak: Ikus I. Eranskina.


### 2.1.3. Dokumentu administratiboen igorpena:

2.1.3.1. Lizentziak, kontzesioak eta hirigintzako baimenak mantentzea proposatzen da:

Mantendu egiten dira.

- Segregazio baimenak ..... 80,00 euro
- Hirigintza kontsultak ..... 80,00 euro.





## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

- Lehen erabilera baimena ..... 105 euro/etxeko.
- Edozein P.E.R.I., Zati Plana, urbanizazio proiektu, xehetasun ikerketa.....1.600,00 euro

2.1.3.2.Iharduera baimenak Euroak

A.1.IGOKA-ri lotuak.....110,00 euro

A.2.IGOKA-ri ez lotuak.....80,00 euro

### **2.2.Herriko jabari publikoaren erabilera pribatiboari eta haren aprobetxamendu bereziari dagozkion tasen Ordenantza fiskala**

*Tarifak mantentzea proposatzen da.*

#### **2.2.1.Hileta zerbitzuak:**

Mantentzea proposatzen da.

- Hezurtegiaren emakida:  
-Behin-betiko emakida, plaka  
barne.....195,00€
- Nitxoen emakida:  
-15 urteko epean, plaka,  
apala,.....265,00€  
-5 urte bitarteko  
luzapenagatik.....125,00€
- Lurperatze tasa: ..... 48,00 euro.

2.2.2.- Kirol instalazioen erabilera: *3 euro orduko.*

2.2.3.- Bestelako prestazioak:


- *Mapen salmenta: Handia.....3 euro unitatea.*  
*Txikia.....1 euro unitatea.*

**HIRUGARRENA.**- 2012 ekitaldirako ondorengo Zerga Egutegia finkatzea:

1.- HOBARI ESKAERA: 2011 urteko abenduaren 1etik 31 arte.

2.- TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUAK:  
2012 urteko apirilaren 2etik ekainaren 1 arte.

3.- URA ETA ZABORREN TASA:



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

2012 urteko maiatzaren 2tik uztailaren 2 arte.  
2012 urteko abuztuaren 1tik urriaren 1 arte.  
2012 urteko azaroaren 2tik abenduaren 28  
arte.  
2013 urteko otsailaren 1etik martxoaren 31 arte.

LAUGARRENA.- Erabakitakoaren berri udal iragarki taulan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz ematea, 30 laneguneko epea irekiz edonork espedientea aztertu eta erreklamazioak edota iradozikunak aurkezteko, bere kasuan. Erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, hartutako erabakiak behin-betikoz onartutzat emango dira beste erabakirik hartu gabe.

### HAMARGARREN PUNTUA

#### **2011 URTEKO JAIETAKO GASTUEN KITAPENAREN BERRI EMATEA, HALA BADA**

Ikusirik San Juan, San Esteban eta San Bartolome jaiak pasa direla, Alkateak jai hauetan egon diren gastuen berri ematen du. Jai guzti hauen kitapena ondorengoa izan delarik:


#### ORDAINKETAK

##### **Kontzeptu ezberdinak**

-Argi engantxeak	607,75
-Etxeferoak	172,19
-Kartelak	360,00
-Herri Ostatua	19,80
-Eszenarioa Irura	150,00
-Eszenarioa Irura garraioa	85,00
-Eszenarioa garraioa	140,64
-Elkarte gastu ezberdinak	29,35
-Arku tiraketa bazkaria	44,90
-Jai batzorde afaria	187,30

##### **San Joan Afaria**

-Haragitegia	193,00
-Postrea eta ogia	150,00
-Piparrak, endibiak,...	50,00
-Kroketak, entsalada...	50,00
-Patatak	5,00
-Helatuak	23,00
-Elkartea	300,00



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

### Musika taldeak

-Gu Gaz-Eztaka teknikoa	150,00
-Gozo Gozo	400,00
-Kupela	1100,00
- Ansorregi eta Larrañaga	500,00
-Solano bokatak	84,40
-Lidia eta Xabier	300,00
-Ansorregi eta Larrañaga	500,00
-Bertsolariak	880,00

### Haur ekintzak

-Jokulandia	1100,00
-Janaria eta platerak	62,67
-Nozilla	8,80
-Ogiak	25,00
-Helatuak	45,36
-Elkarte gastuak	36,40
-Jokuak eta karameloak	16,35
-Txpatxus eta globoak	27,00
-Guraso bazkaria (bakoitzak ordaindua)	96,34

### Sagardo probaketa

-Ogia	27,00
-Sagardoa	40,00
-Txorixoa	80,42
-Basoak	30,50

### Txirrindulari igoera

- DYA	62,66
-Pintxoak	36,00

### Herri kirolak, idi-ahari


-Egurak eta aizkorak	150,00
-Xestuak	38,00

### Opariak

-Trofeoak	396,00
-Pelotariak	150,00
-Ura	4,45
-Edariak eta txanpaña	78,35

### Hamaiketakoa

-Ogia San Esteban	48,35
-------------------	-------



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

-Berdurak San Esteban	6,59
-Haragia San Esteban	366,90
-Elkartea San Esteban	421,20
-Ogia San Bartolome	48,35
-Berdurak San Bartolome	6,59
-Haragia San Bartolome	254,60
-Elkartea San Bartolome	298,48

### **Txozna**

-Limoiak	3,85
-Basoak	37,00
-Elkarteko edaria	25,40
-Txozna	400,00
-Edaria	821,94

### **Zikiro afaria**


-Piparrak	28,80
-Urdaiazpikoa	22,82
-Ikatza	70,00
-Ostatua	31,70
-Erretzailea	100,00
-Zikiro	200,00
-Elkartea	177,99
-Ogia	25,00
-Postrea	120,00

### **Salmentak**

-Urdaiazpikoa (jokua)	129,00
-Karretila boletok	90,00
-Karretila	49,00
-Karretila produktuak	600,00

### **DIRU SARRERAK:**

-Udalaren ekarpena	9000,00 euro
-Propaganda (laguntzaileak)	840,00 euro
-San Joan afaria	915,00 euro
-Urdaiazpiko jokua	230,00 euro
-Sagardo probaketa	181,00 euro
-Errifak	1263,00 euro
-Mus Txapelketa	220,00 euro
-Txozna	1860,65 euro
-Zikiro	700,00 euro
-Guraso bazkaria	111,00 euro



**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

<b>GUZTIRA:</b>	<b>15.320,65 euro</b>
<b>ORDAINKETAK:</b>	
<b>GUZTIRA:</b>	<b>12.847,19 euro</b>
<b>BALANTZEA:</b>	<b>+2.473,46 euro</b>

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengo


**ERABAKITZEN DU:**

BAKARRA: 2011. Urtean San Joan, San Esteban eta San Bartolome jaietan egindako gastuen likidazioa onestu, 15.320,65 eurotako gastua izan delarik.

**HAMAIKAGARREN PUNTUA**  
**FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Alkate-Lehendakari jaunak ondorengo faktura zerrenda aurkeztu du:

EBA ERKIZIA BRION	100,91
FERRETERIA BARBE	28,54
UROLA	21,45
KIROLZER	121,80
ULAHI	803,70
BERRI LANTEGIA	135,26
IZFE	68,59
SASMAK	102,66
IZFE	1.918,51
IZFE	528,64
IZFE	528,64
FONGUI	212,72
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	56,42
IBERDROLA	222,41
IBERDROLA	165,78
IBERDROLA	159,87
IBERDROLA	69,80
IBERDROLA	241,79
REPSOL	55,83
REPSOL	11,86



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

MOVISTAR	95,09
MOVISTAR	18,23
MOVISTAR	20,47
MOVISTAR	88,54
EUSKALTEL	157,68
EUSKALTEL	209,57

Udalbatzarrak **aho batez** hurrengoa,

### ERABAKITZEN DU

BAKARRA.- Aipaturiko fakturak, denera **6.144,76** Eurotako kopurua osatzen dutenak onartzea.

### HAMABIGARREN PUNTUA BESTE BATZUK

#### **12.1. AITZOL UDAL EUSKALTEGIAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik Larraulen Euskara ikastaro bat antolatu dela, hainbat larrauldar bertara joaten direlarik.

Ikusirik, Larraulgo Udalean antolatu den euskara ikastaroa ematea, Tolosako Aitzol Udal Eskaltegitik irakasle bat etortzen dela.

Ikusirik Aitzol Udal Euskaltegiak, Larraulera ikastaroa ematera etortzen den irakaslearen kilometraje gastuak pasatu dituela. Urriari dagokiona 48,72 euro direlarik.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa


### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Aitzol Udal Euskaltegiak, Larraulgo Udalari igorritako Kilometraje gastuak onestea, Larraulen 2011-2012 ikasturtean euskara ikastaroa emateagatik irakasleari desplazamendu gastuak ordainduz.

BIGARRENA: Aitzol Udal Euskaltegiari erabaki honen berri ematea.

#### **12.2.LARRAULGO GURASO ELKARTEAK EGINIKO IDATZIAREN BERRI EMATEA**

Ikusirik Larraulgo Guraso Elkarteak aurkeztu duela idatzi bat, non ondorengoa dioen:



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

*“Udalak Juan Landa abokatuaren gastuen inguruan eginiko jakinarazpenaren (irteera zbk.151) aurrean Larraulgo Guraso Elkarteak 2011ko urriaren 3an egindako bileran adostutakoa Larraulgo Udal taldeari jakinarazi nahi dio:*

### **AURREKARIAK**

*1.2010eko ekainaren 10eko datarekin Larraulgo Guraso Elkarteak Larraulgo udalarekin sinatutako hitzarmenaren arabera Juan Landa abokatuari dagokionez Larraulgo Guraso Elkarteak 750€ gastua beregain hartuko zuela, alegia, abokatuak aurkeztutako aurrekontuan lehenengo faseari zegokion gastuaren %50, gastuaren beste %50, 750€, Udalak bere gain hartzen zuelarik.*

*2.Udalaren jakinarazpenean (irteera zbk. 151) Juan Landa abokatuaren gastua Larraulgo Guraso Elkarteari 2.243,94 euro kostako zaiola eta ez dela izango Larraulgo Guraso Elkarteak, bere bileran adostu eta Larraulgo Udalarekin hitzartutako kantitatea.*

### **ERABAKIA**

*1.Larraulgo Guraso Elkarteak eta Larraulgo udala elkarlanean aritu direla Larraulgo Eskolari buruzko gaietan eta hori dela eta, Juan Landa abokatuak aurkeztutako gastu osoaren erdiari aurre egitea, hots, 2.243,94€*

*2.Larraulgo Guraso Elkarteak, aurrerantzean, hitzartutako gastuei soilik aurre egin ahalko diela.*

*3.Erabaki honen berri Larraulgo udal taldeari ematea.”*

Batzarkideak, Larraulgo guraso elkarteak, aurkezturiko idatziaren berri jasotzen dute.


### **12.3.LARRAULGO GURASO ELKARTEAK EGINIKO ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik Larraulgo Guraso Elkarteak aurkeztu duela idatzi bat, non ondorengoak dioen:

**“Gaia: armairu eta leku eskaera**

*A.E.C., 44125651J Na zk duenak, Pello Errota ikastetxeko Murgil Larraulgo Gurasoen Elkarteak izenean, non IFZ zk G-75008128, San Esteban Plaza z/g, 20159, Larraul eta Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen erregistro Nagusiko AS/G/14747/2009 zk. Duenak,*

**ADIERAZTEN DU:**



## LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

*Murgil Larraulgo Guraso Elkarteak sortutako dokumentazio guztia leku fisiko bateratu batean egotea komenigarritzat ikusten duela.*

*Leku fisiko hori Murgil Larraulgo Guraso Elkarteak osatzen duten guraso guztientzako eskuragarria izan beharko lukeela.*

### ESKATZEN DU:

*Larraulgo Udalak giltza duen balda anitzeko armairu bat uztea, dokumentazioa bertan gorde dadin.*

*Larraulgo Udalak udaletxeko eraikinean armairu horrentzako egokia izan daitekeen espazio bat utzi dezala, gurasoek eskuragarriagoa izan dezaten dokumentazioa.*

*Eta dagokion lekuan jasota gera dadin eskabide hau sinatzen du,.....”*

Gaia azterturik, Udalbatza honek aho batez, ondorengo

### ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Larraulgo Murgil Guraso Elkarteari, Kultur etxeko sikomotrizidade gelatik atera eta balkoian dagoen armairuaren giltza uztea, elkarteak duen dokumentazioa bertan gorde ditzan.

BIGARRENA: Erabaki honen berri Larraulgo Murgil Guraso Elkarteari ematea.

### **HAMAIRUGARREN PUNTUA** **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**


Ez dira aurkezten.

*Beste gairik ez dagoenez, gaueko 22.00 orduak direnean Alkate orde jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, Idazkari-Kontuhartzaile naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.*

ALKATEA

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA





**LARRAULGO UDALA**

(GIPUZKOA)

